Bestelako Xedapenak

KULTURA SAILA

847

EBAZPENA, 2009ko otsailaren 2koa, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearena, aurri espedientean den higiezina (Barrenkale kalea, 8, Durango) partzialki desafektatzeko espedienteari hasiera emateko, jendaurrean jartzeko eta interesdunei entzuteko dena.

Uztailaren 3ko Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legearen (abuztuaren 6ko EHAA, 157. zenbakia) 36. artikuluan ezarritakoaren arabera, ez dago sailkatutako edo zerrendatutako kultura-ondasunak botatzerik, baldin eta aldez aurretik euren aurri-egoera adierazi ez bada, eta dagokion Foru Aldundiak eraisteko baimenik eman ez badu. Era berean, derrigorrezkoa izango da Eusko Jaurlaritzak sailkatutako kultura-ondasun izatetik kentzeari buruzko baimena aldez aurretik ematea.

Aipatutako Araudia garatzeko azaroaren 10eko 306/1998 Dekretua eman zen, sailkatutako eta zerrendatutako kultura-ondasunen aurri egoeraren deklarazioari buruzkoa eta berauek eraisteko erabakiaren aurretik eta ondoren egin beharrekoei buruzkoa (azaroaren 26ko EHAA, 226. zenbakia).

Durangoko Udalak Euskal Kultura Ondarearen Zentroari Durangoko hirigune historikoan den (Barrenkale kalea, 8) higiezinaren aurri espedientearen kopia igorri zion, eta aipatutako 306/1998 Dekretuari jarraituz desafektatzeko espedienteari hasiera emateko eskatu zuen.

Izan ere higiezina Durangoko (Bizkaia) Hirigune Historikoa Kultura Ondasun gisa Monumentu Multzo izendapenaz kalifikatu zuen eta hura zaintzeko babes arauak ezarri zituen. Urtarrilaren 14ko 4/1997 Dekretuaren arabera oinarrizko babesa du (urtarrilaren 30eko 20. zk. duen EHAA).

Zerbitzu Teknikoen txostenak, aurri egoeraren espedientea eta izan diren ekintzak ikusirik, Euskadiko Monumentu kategoriako Arkitektura Ondarearen Aholku Batzordeak 2008ko ekainaren 12an egindako batzarrean Durangoko higiezina (Barrenkale kalea, 8) partzialki desafektatzea erabaki zuen.

Euskal Kultura Ondarearen Zentroko zerbitzu teknikoek aurkeztutako Erabaki Proposamena aztertu ondoren eta Euskal Kultura Ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 36. artikuluan eta azaroaren 10eko 306/1998 Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoarekin bat, azken hori sailkatutako eta zerrendatutako kultura-ondasunen aurri-egoeraren deklarazioari buruzkoa eta

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE CULTURA

847

RESOLUCIÓN de 2 de febrero de 2009, del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, por la que se incoa y somete a información pública y audiencia a los interesados el expediente de desafectación parcial del inmueble n.º 8 de la calle Barrenkale de Durango, incurso en un procedimiento de declaración de ruina.

La Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco (BOPV n.º 157, de 6 de agosto) establece en su artículo 36 la prohibición del derribo de los bienes culturales calificados y de los inventariados sin la previa declaración de ruina y autorización expresa de la Diputación Foral, siendo preciso asimismo la autorización previa del Gobierno Vasco sobre la desafectación.

En desarrollo de la citada normativa se dicta el Decreto 306/1998, de 10 de noviembre, sobre la declaración de estado ruinoso de los bienes culturales calificados y de los inventariados y actuaciones previas y posteriores a la resolución sobre el derribo de los mismos (BOPV n.º 226, de 26 de noviembre).

El Ayuntamiento de Durango remitió al Centro de Patrimonio Cultural Vasco copia del expediente de declaración de ruina del inmueble situado en el n.º 8 de la calle Barrenkale, en el Casco Histórico de Durango, y solicitud para que se incoará el correspondiente expediente de desafectación, de conformidad con el Decreto 306/1998 citado.

Este inmueble es un elemento de protección básica en virtud del Decreto 4/1997, de 14 de enero, por el que se califica como Bien Cultural, con la categoría de Conjunto Monumental, el Casco Histórico de Durango (Bizkaia) y se fija su régimen de protección (BOPV n.º 20, de 30 de enero).

A la vista de los informes técnicos, el expediente de ruina y las actuaciones seguidas, el Consejo Asesor del Patrimonio Arquitectónico Monumental de Euskadi, en la sesión de 12 de junio de 2008, acordó la desafectación parcial del inmueble n.º 8 de la calle Barrenkale en Durango.

Vista la propuesta de resolución presentada por los Servicios Técnicos del Centro de Patrimonio Cultural y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 36 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco; así como en el artículo 17 del Decreto 306/1998, de 10 de noviembre, sobre la declaración de estado ruinoso de los bienes culturales calificados y de los inventaria-

berauek eraisteko erabakiaren aurretik eta ondoren egin beharrekoei buruzkoa dena, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Aurri-prozeduraren barnean den eraikinaren (Barrenkale kalea, 8, Durango) desafekzio partzialaren prozedurari hasiera ematea, Barrenkale kaleko fatxada gorde egin behar delako. Izan ere, higiezin horri oinarrizko babesa esleitu zitzaion urtarrilaren 14ko 4/1997 Dekretuaren bidez (urtarrilaren 30eko EHAA, 20. zenbakia), zeinak Durangoko (Bizkaia) Hirigune Historikoa Kultura Ondasun gisa Monumentu Multzo izendapenaz kalifikatzeko eta horren babes-araudia ezartzen baitu.

Bigarrena.– Informazio publikorako epea irekitzea eta interesdunei entzuteko izapideari ekitea. Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita 20 eguneko epea egongo da alegazioak egin eta egokitzat jotzen diren agiriak aurkeztu ahal izateko, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeko 84. eta 86. artikuluek ezartzen dutenaren arabera. Espedientea jendaurrean dago Euskal Kultura Ondarearen Zentroan (Donostia-San Sebastián kalea, 1, Vitoria-Gasteiz)

Hirugarrena.– Ebazpena interesdunei, Durangoko Udalari, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura eta Hirigintza Sailei eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari jakinaraztea, ebazpen honen aurka errekurtsorik jartzerik ez dagoela adieraziz, ebazpen hau tramite hutsezko egintza baino ez da eta.

Laugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, jende guztiak honen berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko otsailaren 2a.

(Gurutz Larrañaga Zubizarreta, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordea ez dagoela-eta, otsailaren 14ko 25/2006 Dekretuak xedatutakoarekin bat etorriz)

Kultura Ondarearen zuzendaria,
ARANTZA ARZAMENDI SESE.

dos y actuaciones previas y posteriores a la resolución sobre el derribo de los mismos y demás normativa de aplicación,

RESUELVO:

Primero.– Incoar procedimiento de desafectación parcial, al tener que mantenerse la fachada a la calle Barrenkale, del edificio incurso en procedimiento de ruina de la calle Barrenkale n.º 8 de Durango, elemento de protección básica en virtud del Decreto 4/1997, de 14 de enero, por el que se califica como Bien Cultural, con la categoría de Conjunto Monumental, el Casco Histórico de Durango (Bizkaia) y se fija su régimen de protección (BOPV n.º 20, de 30 de enero).

Segundo.– Abrir un periodo de información pública, y conceder trámite de audiencia a cuantos resulten interesados para que en el plazo de 20 días, contados a partir del día siguiente a la publicación de esta Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco, se puedan efectuar las alegaciones y presentar la documentación que se estime oportuna, conforme a los artículos 84 y 86 de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, encontrándose el expediente de manifiesto en el Centro de Patrimonio Cultural Vasco, sito en la calle Donostia-San Sebastián n.º 1 de Vitoria-Gasteiz.

Tercero.– Notificar la resolución a los interesados, al Ayuntamiento de Durango, a los Departamentos de Cultura y Urbanismo de la Diputación Foral de Bizkaia y al Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco, comunicándoles que frente a la misma no cabe la interposición de recurso alguno, al tratarse de un acto de mero trámite.

Cuarto.– Publicar la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial de Bizkaia para su general conocimiento.

En Vitoria-Gasteiz, a 2 de febrero de 2009.

(Por ausencia de Gurutz Larrañaga Zubizarreta, Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, de conformidad con lo dispuesto en el Decreto 25/2006, de 14 de febrero)

La Directora de Patrimonio Cultural,
ARANTZA ARZAMENDI SESE.